

anboto

LEKUAN LEKUKO

ELKARTASUNA

"Musikariek antolakuntzan ere lagunduko digute 'Oihu bat Palestinara' ekimenean" / 4



ZINEMA

"Lantaldekoak oso pozik gaude Goya saria irabazita" / 17

Uxue Artetxe
Zinemagilea



Artetxe, erdian makurtuta.



GREBA OROKORRA
1500€
SOLDATAK HOBETU, ABERASTASUNA BANATZEKO
HEMEN ERABAKI

Gutxieneko soldata 1.500 euroan ezartzea eskatu dute


Greba orokorrak "oso jarraipen zabala" izan dueskualdean, ELA eta LAB sindikatuek adierazi dutenez. Beharginek mobilizazio ugari egin dute lanbide arteko gutxieneko soldata "hemen erabakitzea" eskatzeko / 9

Grebalariak lurretako Bidebarrieta etorbidean, martitzen egunsentian.

FUTBOLA

"Futbolagaz gozatzen nabil, zentratuta. Batek daki etorkizunak zer dakarren"

Ekaitz Molina abadiñarra 100 partidura heldu da Barakaldo futbol taldeagaz. Denbora honetan igoera bi lortu ditu / 20



CD BARAKALDO

ELKARRIZKETA

"Gazte Topaguneak gura dugun herria amesten lagunduko digu" / 2-3

Izar Zubiaga eta Uxue Farelo
Gazte Topaguneko antolatzaileak



"Abadiño gazte independentisten, sozialisten eta feministen plaza izango da"

IZAR ZUBIAGA IRIARTE ETA UXUE FARELO SARASUA
GAZTE TOPAGUNEKO ANTOLATZAILEAK

Zubiaga durangarra eta Farelo abadiñarra buru-belarri dabilta antolakuntza lanetan, koordinazio eta dekorazio gaietan, besteak beste. Edozelan ere, jairako tarte ere hartuko dute

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Ernaik Gazte Topagunea egingo du Abadiñon, apirilaren 2tik 5era. Euskal Herri osoko "gazte independentista, sozialista eta feministak" batu gura dituzte Zelaietako kaleetan. Hainbat gaztek eta herriko hainbat boluntariok lan egingo dute egun horietan, Gazte Topagunean ezertxo ere falta ez dadin. Izar Zubiaga durangarra eta Uxue Farelo abadiñarra gogotsu daude lau eguneko topaketan murgiltzeko.

Zelako aldartea duzue Gazte Topagunearen atarian?

Uxue Farelo: Egia esanda, nahikoa urduri nago, geroago eta gutxiago geratzen delako Gazte Topagunea Abadiñon hartzeko. Gauza asko egin behar da denbora gutxian, baina, hala ere, gogotsu gaude hitzordurako.

Izar Zubiaga: Topagune atariko girotxo hori inguruko herrietan ere igartzen da eta has-teko gogoz gaude.

Zein puntutan daude prestaketa lanak?

U.F.: Bilerarik bilera gabe gaitza egun hauetan, eta muntaketa lanak gainean ditugu. Gazte Topagunea Abadiñon egingo zela jakin genuenean, herriko gazteekin bilerak egin genituen, eta baita udalagaz ere. Gazte-

txean ere aurkezpen publikoa egin dugu.

I.Z.: Inguruko herrietan ere bagabiltza Gazte Topagunea zabaltzen eta sozializatzen. Era berean, Abadiñora ere joan gara laguntza eskaintzera.

Zeintzuk dira aurtengo Gazte Topagunearen helburuak?

I.Z.: Urteroko berberak direla esango nuke. Abadiño gazte independentisten, sozialisten eta feministen topaleku bihurtu gura dugu. Elkarregaz saretzeko eta trebatzeko gunea izango da, gura dugun herria elkarregaz amesteko topagunea. Autogestioan onarritutakoa izango da, herrikoia, abadiñar askoren inplikazioa izango duena.

U.F.: Gazte Topagunea Aste Santuaren bueltan egiten da beti eta Abadiñok ezaugarri aproposak ditu egitasmoa hartzeko. Trenez heldu daiteke udalerrira, aparkaleku asko dago, eremu handiak, eta herriko ostalariak eta dendariak ere lanketan parte hartzen dabilta. Harrera ona egin diote Gazte Topaguneari. Bestalde, ez da ahaztu behar jende asko etorriko dela Euskal Herriatik Abadiñora.

Herriko zein lekutan atonduko dituzue jaialdiko azpiegiturak?

U.F.: Gune edo karpa nagusia



Izar Zubiaga eta Uxue Farelo.

"Elkarregaz saretzeko gunea izango da, gura dugun herria amestekoa"

"Gune nagusia Tornosolon egongo da; akanpalekua, eskolen ondoko zelaian"

Tornosolon egongo da, trinkete ondoko aparkalekuan. Karpa txikia ere hari atxikita egongo da aurrean, aurreko urteetan ez bezala, beste edizioetan aparte ipini dira eta. Akanpalekua eskolaren ondoko zelaian egongo da, eta furgoneten gunea eskolako aparkalekuan. Akeita gunea San Trokaz plazan egongo da, udaletxearen aurrean. Eta frontoia sukalde lanetarako erabiliko dugu. Infogunea udaletxea izango da eta txandak antolatzeke erabiliko dugu. Txanportan eszenatoki bat ipiniko dugu, kontzertu txikiak egiteko, eta azpiegitura hori berbaldi handiak

egiteko erabiliko dugu. Gazte- txean ere pare bat berbaldi egingo dira. Elektrotxarangak dau-den bitartean, gaztetxeko taberna zabalik egongo da.

Zuek biok zer zeregin izango duzue Gazte Topaguneko egunetan?

U.F.: Ni herriko kontuetan nabil, koordinazio lanetan. Txandak lotzea, gaztetxeko kontuak kudeatzea, propaganda egitea, herri bileretara gazterak erakar-tzea, herritarrei azalpenak ematea.... Horretan gabe gaitza. Azken finean, denekin gabe gaitza hartu-emanetan Topagunera etortzeko eta bakoitzak bere aletxo ipintzeko.

I.Z.: Ni dekorazio taldean nabil. Propaganda modu bereziago batean zelan atundu pentsatzen gabiltza, panelak eta halakoak margotzen. Horrez gainera, *eskulangileak* izango naiz, Abadiñoko eta eskualdeko beste hainbat boluntariogaz batera. *Eskulangileak* muntaketan eta desmuntaketan ibiliko gara lanean, baita txandak egiten ere Gazte Topaguneak irauten duen bitartean. Txanda luzeak izaten dira. Egun guztikoak zein gaba guztikoak.

Lan egiteaz gainera, zelan gozatu-ko duzue Topaguneaz?

I.Z.: Gaueko txandan lan egitea egokitu zaidanez, ezin izango dut gaueko ekitaldiez gurako nuen moduan gozatu. Eguneko egitarauko ekimenetan, bai, egongo naiz. Berbaldi batzuk begiz jota ditut eta horietara joango naiz. Elektrotxarangaren ekitaldira eta beste animazio batzuetara ere joango naiz.

U.F.: Nire egoera alderantzizkoa da. Egunez lan karga handiagoa izango dut. Gaztetxean eta Abadiñoko herritarrekin koordinazio lanak egitea izango da nire zeregina. Gauari dagokionez, kontzertu batzuk

ikusteko gogoia dut, Etxepe taldearena, adibidez, aspaldian jo barik ibili dira eta. Nafarroa 1512 taldea ere ikusi gura dut. Berbaldiak entzutera ere joango naiz, Ikamaren berbaldia, adibidez. Horrez gainera, gaztetxean tailer bi egongo dira: *body painting* tailerra eta gazte mugimenduari buruzko berbaldia. Azkenik, Txanportako kontzertuak zoragarriak izango dira. Ea eguraldiak laguntzen duen.

Egin gonbita irakurleei.

U.F.: Egitaraua ikusita, Gazte Topagunea ekitaldi gozagarria izango da edozein pertsonarentzat, baita ekarpena egiteko ere.

I.Z.: Borroka honen parte izatera gonbidatzen ditugu herritarrek, Euskal Herri independente, sozialista eta feministaren bideari ekarpena egitera.

U.F.: Izan ere, Gazte Topagunea aukera bikaina da horren alde batzeko eta borrokatzeko.



Egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau.

Kontzertu, berbaldi eta animazio eskaintza zabala

E.H. ABADIÑO

Zelaietako kaleak Euskal Herri osoko gazteekin beteko dira apirilaren 2tik 5era, eta Ernaik egitarau eskaintza zabala prestatu du Gazte Topagunea askotariko kolorez janzteko.

Apirilaren 2ko kontzertuan, Nafarroa 1512, Ezpalak, Maruxak, Perlata, Etxepe, Anuk eta Elene, Pary&Tiza eta Skabidean taldeek joko dute. Halaber, Gasteizko Martxoaren 3ari buruzko berbaldia, Venezuelari buruzkoak, *Txillareko sukaldaria* liburaren aurkezpena eta bitxigintza tailerra izango dituzte, besteak beste.

Barikuan, apirilak 3, Kiliki, Tapia eta Leturia, Fitoskins, Belako, Sedientos de Cumbia, Odei, Bassajaun Sound System, Bengo, Hofe eta Siwanaba B2B La Fulana igoko dira oholtzara. Berbaldien atalean, Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalearen erronkak, inperialismo digitala, hamarkadetako gazte borrokaren



2022an Elorrioko Gazte Topagunean egindako ekitaldi bat. ERNAI

esperientziak, euskal feminismoaren erronkak eta "Ezkerkeria: erradikalismo erretorikoaren noraeza", aztertuko dituzte, beste hainbaten artean.

Zapatuan, apirilak 4, honako hauek izango dira artista nagusiak: Pantxoa eta Peio, Gozategi, Sua, La Txama, Arene 6, BKTS, Streetwise, Xaukena Xauk, Kuku&Kene, Berakatz eta DJ Reimy. Hausnarketarako tartean, euskararen erronkak, Lanbidearteko Gutxieneko

Soldata, nazio askapenerako mugimendua, kultur aniztasuna eta olatu erreazionarioak aztertuko dituzte. Horrez gainera, ekitaldi politikoa ere zapatuan egingo dute.

Sarrerak *entradium.com* atarian erosi daitezke. Eguneko eta barikuko sarrera 25,8 euro da egun bakoitzeko; zapatukoa 31 euro. Egun guztietako bonua gura duenak 67 euroan eskuratu dezake. Bestalde, furgonetan aparkalekurako sarrera ere salgai dago, 10,4 euroan.

MGEP

MONDRAGON IGOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrial
- | Automatizazio eta Robotika Industrial
- | Energia Berriztagarriak **BERRIA**

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna



TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

ATE IREKIAK



Martxoak 28

Maiatzak 9

11:00etan

664 298 683

"Talde guztiek lehenengoan esan zuten baietz, eta gerora gehiagok batu gura izan dute"

KATTALIN BARCENA ETA MARIO TELLETXEA EKIMENeko ANTOLAKETA TALDEKO KIDEAK

J.D. DURANGO

Durangoko Landako Guneak 'Oihu bat Palestinara' jaialdia hartuko du zapatu honetan. Musikaz eta aldarrikapenez osaturiko eguna izango da. Musikaren munduaren eta Palestinarekin Elkartasuna plataformaren artean antolatu dute. Barcena eta Telletxea antolaketa taldekoak dira.

Zeintzuk dira jaialdia antolatzeko arrazoiak?

Kattalin Barcena: Euskal Herriko musikariak Palestinaren aldeko ekimenak eta adierazpenak egiten zebiltzan, eta musikarien partetik zeozer antolatzeko aukera ikusten genuen. Palestinarekin Elkartasuna dinamikagaz hartu-emanetan ipini ginen eta bion artean antolatu dugu jaialdia. Alde batetik, Palestinaren aldeko mezua zabaltzen jarraitzeko beharria ikusten genuen, bake itun faltuaren atzean Palestinak genozidioa jasaten jarraitzen duelako Israelen partetik. Bestetik, Euskal Herriko eragileek errepresioa jasaten dabilta Palestinaren aldeko borroka honetan, isunen bitartez adibidez, eta honelako jaialdi batek eurei ekonomikoki laguntzeko balio zezakeela pentsatu genuen.

Mario Telletxea: Isunen eta auzipetuen kopurua asko handitu da Palestinaren aldeko mobilizazioetan parte hartzeagaitik. Kasurako, Vuelto boikot ekintzen harira. Errepresio mota horren bitartez, Palestinagazko elkartasuna desmobilizatzen ahalegintzen dabilta. Faktore bik erakusten dute hori: batetik, hedabideetan geroago eta gutxiago agertzen da Palestinaren gaia, eta, bestetik, mobilizazioak erreprimitzen dabilta. Jaialdian lorturiko etekinek isunak eta zigor judizialak arintzeko ere balioko dute.

25 talde baino gehiago batuko dira. Itxaroten zenuten horrelako erantzuna?

K.B.: Euskal Herriko musikari askok oso ondo erantzun dute eta benetan poztekoa da. Karteletako talde guztiek lehenengoan esan zuten baietz, eta gerora gehiagok batu gura izan dute, baina ezin ditugu denak

hartu, denbora eta azpiegitura kontuak tarteko. Baina musikari askok agertokian ez ezik antolakuntzan ere lagunduko digute, eta hori oso polita da. Dena behar den moduan irtekeko, Euskal Herriko jende asko egongo da egunean zehar lanean: musikariak, gaztetxeetako jendea...

M.T.: Jaialdia Durangon denez, herriko eta Durangaldeko jende asko ere inplikatu da ekimena aurrera ateratzeko. Hainbat eragile eta taldegaz laguntza sarea osatu da ekimena antolatzeko, eta zabalkundean eta antolaketan lan egiteko.

Zer aurkituko du jaialdira datorrenak?

K.B.: Ekimena 11:00etan hasiko da. Egun osoan ordu erdiko musika kontzertuak egongo dira, agertoki bitan banatuta. Tartean, beste mota bateko ekitaldiak ere egongo dira; bertsolariak, bakarrizketa saioak, dantza... Janaria ere egongo da, eta gune zabal bat jateko. **M.T.:** Egunari beste izaera bat ere eman gura diogunez, aldarrikapenerako tartea ere egongo da.

Kattalin, zu J Martina taldeko kidea zara. Denboraldi bat daramazue



Kattalin Barcena eta Mario Telletxea, Landako Gunearen aurrean.

kontzerturik jo barik. Zelan heltzen diozue jaialdi honetan emango duzuen kontzertuari?

K.B.: Taldean atsedan luze bat hartu dugu, baina iruditzen zitzaigun oso une inportantea dela musikariok artista legez dugin konpromisoa erakusteko. Musikaren eta artista konprometituen alde apustu egiteko modua zela ikusten genuen, euren mundua, gizartea eta ingurua kontuan hartzen dituzten horien alde. Geure burua horretan ikusten genuen eta oso gogotsu hartu dugu proposamena.

Zelan eskuratu daitezke sarrerak?

K.B.: Aurrez aurreko salmenta epea amaitu da. Sarrerak Interneten eskuratu daitezke, *oihubatpalestinara.eus* webgunearen bitartez. 15 edo 25 euroko ekarpena egin daiteke, bakoitzak ahal duenaren arabera.

EKIMENeko INFORMAZIOA

Ekimena zapatuan izango da, Landako Gunean. 11:00etan hasiko da.

- Musikariak: Ahmed & Nur, Anari, Belako, Bengo, Borla, Chuleria joder!, Dena, Ezezez, Eire, La Furia, Gailu, Hofe, Ibilbedi, J Martina, Ke Lepo, Kiliki, Lukiek, Malakias, Maruxak, Merina Gris, Mursego, Naxker, Nize, Odei, Olatz Salvador, Silitia eta Mateo Zikuta & Calie.
- Beste batzuk: Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Amets Arzallus eta Txaber Altube bertsolariak. Antton Telleriaren eta Asier K-ren bakarrizketa saioak. Nabiga Kolektiboaren dantza ikuskizuna.

Ourdaybik mendia erdigunera ekarriko du Durangoko proiektzioekin

J.D. DURANGO

Ourdaybi kirol elkarteak mendiari loturiko proiektzio bi antolatu ditu martxoaren 27rako. Durangoko San Agustin kultur-gunean izango dira, 18:00etan. *Ourdaybi mendi-taupadak* izena ipini diote ekimenari eta sarre- ra doakoa izango da.

Proiektzio batek Josu Merino elgoibartarrak eta David Lopez 'Troner' errioxarrak Dolomite-tan eta Suitzako Alpeetan egindako eskalada saio gogorak erakutsiko ditu. 2025eko urte hasieran, izotz eskaladako eta *dry tooling*-eko zailtasun handiko bideak egin zituzten han. Lorpen horiengaitik, Mendiko Kiroletako eta Eskaladako Es-

painiako Federazioaren sari bat jaso zuten biek. San Agustinen Josu Merino egongo da, eta, bere abenturaren gaineko azalpenak emateaz gainera, bertaratutakoen galderei erantzungo die.

Ainhize Belarren proiektzioa

Beste proiektzioa eskaladaren ingurukoa da eta eskualdeko eskalatzaile bat du protagonista: Ainhize Belar atxondarra. Iaz 9a zailtasun mailako *Harroputza* izeneko bidea egin zuen Araban. Eginoko eskalada gunean, eta ikus-entzunekoak abentura hori jasotzen du.

Ekimena Ourdaybiko kide den Ana Picallok aurkeztuko du; proiektzioak ez dira arratsaldeko



Ainhize Belar eskalatzen.

osagai bakarrak izango. Jaialdiaren hasieran, Garazi Abalde sek mendia eta dantza uztartzen dituen *pole dance* saioa egingo du. Bertaratzen diren entzat luntx bat egongo da amaieran, San Agustineko sarreran.

Otzamotzenan, batzarrerako deialdia



Batzarra Otamotzenako auzogunean izango da

Martxoaren 24ko martitzenean, 19:00etan, batzar zabala egingo dute San Roke-Otamotzena auzoan, kantxa eta pilotaleku berri bana eraikitzeko proiektua aurkezteko. Bilera Otamotzenako auzogunean izango da, udalak ohar batean zehaztu duenez. Bertan, proiektuaren xehetasunak azalduko dituzte eta bertaratutakoek zalantzak argitu eta iradokizunak egin ahal izango dituzte. Interesa duten denentzat egin dute deialdia.

Durangoko Udalak hainbat neurri jasotzen duen Etxebizitza Plana onartu du

EH Bilduk gobernu taldeak egindako planaren eztabaida publikoa eskatu du

J.D. DURANGO
Durangoko Udalak lehenengo Etxebizitza Plana onartu du gobernu taldearen (EAJ eta PSE-EE) eta PPren aldeko botoekin. EH Bildu abstenitu egin da eta Herriaren Eskubideak ez du bozketan parte hartu.
Udalak ohar batean azaldu du etxebizitzagazko kezka soziala "nabarmen hazi" dela azken urteotan. "2025eko udal inkestaren arabera, etxebizitza da tokiko kezka nagusia Durangon, %15,3gaz", zehaztu dute. Etxebizitza Planak beharrian horri erantzun gura dio.
Dokumentuak datozen bost urteetan garatuko diren hainbat neurri jasotzen du, lau eremutan banatuta: etxebizitza politiken udal kudeaketa bultzatzea, hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea, etxebizitza babestuen parkea handitzea eta etxebizitza turis-



Durangoko Etxebizitza Planak bost urtetan garatzeko neurri sorta jasotzen du.

tikoak erregulatzeko neurriak hartzea. Udal gobernuaren etxebizitza politikak datozen urteetan "gutxienez babes ofizialeko 530 etxebizitza tasatu eraikitzea" aurreikusten duela ere adierazi dute.

Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak planaren helburua azaldu du: "Etxebizitza eskurtzea herritarren kezka nagusietariko bat da gaur egun, eta lehentasunetarikoa bat udal honentzat. Plan honek urrats

sendoa ematen dugu gazteek euren bizi proiektua hemen garatu ahal izateko".

Oposizioaren iritzia
Durangoko EH Bilduk osoko bilkurara eramango du etxebizitza larrialdiaren debatea, "eztabaida publikoa izan dadin eta alderdi bakoitzak herritarren aurrean neurririk egokienak aurkezteko aukera izan dezan". Izan ere, subiranisten berbetan, "Etxebizitza Plana ez da prentsara bidalitako argazkiekin egiten", mahai gainean "epeak eta aurrekontua" ipinita baino. EH Bilduk hamar neurri eta helburu bi proposatu zituen etxebizitzaren auziari aurre egiteko. Besteak beste, "300 etxebizitza huts" mobilizatu gura dituzte datozen lau urteetan.
Herriaren Eskubideak bozketan parte ez hartzea arrazoi-tu du: "EAJk, PSOEek eta PPK eztabaida publiko eta zabal bat bermatzeari uko egin diotenez, parte ez hartzea erabaki dugu. Uste dugu herritarrek eskubidea dutela zuzenean eragiten dieten erabakietan ordezkartuta egoteko".

Herriaren Eskubidea kritiko kirol zerbitzuen kudeaketagaz

J.D. DURANGO
Herriaren Eskubideak Landako kiroldegiko zerbitzuen "kudeaketa txarra" leporatu die EAJ-ri eta PSE-EE-ri. Talde independentearen esanetan, erabiltzaileei "galarazi" egiten zaie kirol ohiturak "betetzea". Eta gaineratu dute jeltzaleek eta sozialistek ez dituztela "agindutako konpromisoak bete". Esan dutenaren arabera, fitness aretoko makinak berriztu barik daude, Tabirako igerilekua-tako aldagelak eraiki barik egongo dira 2026ko udarako, eta kirol zerbitzuen kontratua berriztu barik dago. Halaber, egoera hori kirol zerbitzuetako prezioak igotzeagaz "kontrae-sankorra" dela esan dute. Hiru neurri hartzea proposatu dute, "arazoak konpondu" bitartean: makinak alokatzea erretiratu-tako makinaren ordean, fitness aretoko kuotaren %20 bueltatzea, eta oraindutakoa atzera bota gura dutenei dirua bueltatzeko kudeaketa erraztea.





1937-2026
DURANGO

Martxoak

Durangoko Bonbardaketak Oroituz



Zornotzan herriko merkataritzaren eta ostalaritzaren egoera aztertzen dabilta

Udalak sektorea zelan dagoen jakin gura du, etorkizuneko erronkei erantzuteko

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udala herriko ostalaritzaren eta merkataritzaren egoera aztertzen dabil, udalerriko errealtatea eta sektoreak dituen erronka eta aukerak identifikatzeko, eta etorkizuneko erronkei erantzun bat emateko neurri eraginkorrrak batuko dituen plan bat diseinatzeko. "Zornotzarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzen lagunduko duten neurriak identifikatzea da asmoa, tokiko sare ekonomiko sendo eta dinamikoa bultzatuta", azaldu du udalak ohar baten bitartez. Prozesu horren barruan, hainbat ekintza antolatu dute. Urtarrilean, adibidez, informazio saio bat egin zuten Zelaia Zentroko auditorioan, udalerriko merkataria eta ostalariei zuzenduta. "Saioaren helburua ikerketa azaltzea eta horren nondik norakoak partekatzea izan zen, sektoreko profesionalen ekarpenak jasotzeaz gainera", azpimarratu dute. Topaketa horretan, Alfredo Rodriguez-Berzosak ikerlanaren helburuak eta lan ildo nagusiak aurkeztu zituen, eta parte hartzaileek euren iritzia eta pro-



Zornotzako herriguneko kale bat.

posamenak partekatzeko aukera izan zuten; Rodriguez-Berzosa Tarazaga enpresako proiektu zuzendaria da.

Udalak ikerketak izango duen garrantzia nabarmendu du. "Ikerketaren emaitzek oinarri sendoa eskainiko dute tokiko merkataritza eta ostalaritza indartzeko neurriak diseinatzeko, Zornotzak kalitatezko zerbitzuak eta jarduera ekonomiko bizia eskaintzen jarraitu dezan", azaldu dute. "Sektoreko eragileen parte hartzea funtsezkoa da prozesu hau errea-

litatera egokitua eta benetan erabilgarria izan dadin. Horregaitik, merkatarien eta ostalarien ikuspegia zein esperientzia zuzena kontuan hartuko dira, udal politikak eta etorkizuneko ekintzak modu partekatuan definitzeko", gehitu du udalak.

Gizarte laguntzak

Bestalde, udalak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epea zabalik dagoela gogoratu du ohar baten bitartez. Azarora bitartean egin ahal izango da tramitazioa, HAZen bulegoan.



Skolastikak antolatu du erakusketa.

Berba Lapiko berdintasunaren aldeko liburuak erakusten dabil martxoan

A. M. ZORNOTZA

Berba Lapiko ekimenak emakumeen eskubideen eta genero berdintasunaren inguruko hausnarketak eta eztabaida bultzatu gura ditu martxoan zehar. Horrela, liburutegiko armairu batean liburu feministak eta genero berdintasunari buruzko materiala ipiniko ditu herritarren eskura. "Liburu horiek emakumeen ikusgarritasuna literaturan, komikigintzan, eleberrian eta entseguan lantzen jarraitzeko aukera ematen dute", azaldu du Zornotzako Udalak ohar baten bitartez. "Berba Lapiko udal liburutegian kokaturiko gune bizia da, bizitzagaz eta herriagaz zerikusia duten gaiak jorratzeko helburua duena.

Herritarrek parte hartzera eta gogoeta egitera gonbidatu gura ditugu", nabarmendu dute. Bestalde, udalak 100 liburu ipiniko ditu herritik banatuta dauden 'istorio txokoetan'. "Horrela, liburutegira joan ezin direnek emakumeen eskubideak eta pentsamendu feministaren azken bilakaerak ezagutzeko aukera izango dute", gaineratu dute.

Ekimena borobiltzeko, Skolastika elkarteak antolatutako *Irakurleak* erakusketa ipini dute Zelaietako erakusgelan, martxoaren 27ra arte. "Emakumeak, berdintasuna eta irakurzaletasuna batzen dituen erakusketa ikusgarria izango da", argitu dute.

Berriztarrak berriro irten dira kalera osasun publikoaren alde



Joan zen domekako mobilizazioko irudi bat.

Aritz Maldonado BERRIZ

Dozenaka herritar batu ziren Berrizko Pentsiodunen Mugimenduan joan den barikuan egindako deialdira. Eskualdeko beste herrietako hainbat kide ere joan zen osasun sistema publikoa babesteko egindako deialdira. Manifestariak Berrizko kale nagusiak zeharkatu zituzten, 'Osakidetza defenda dezagun', 'Ez, ez, ez, privatizaziorik ez!' eta halako leloak oihukatuta. Bestalde, azken urte bietako mobilizazioetan egin duten lege, Berrizko anbulatorioan hiru mediku egoteko konpromisoa betetzeko eskatu diote Osakidetza, eta "osasun sistema publikoaren desegitea estrastrukturala" eta "pazienteak esparru pribatura bultzatzen dituen estrategia" salatu dituzte. Aurrerantzean ere mobilizazioak egiten jarraituko dutela adierazi zuten manifestazio amaieran.

Berrizko landa eremuetako uraren sarean konponketak egingo dituzte

A. M. BERRIZ

Berrizko landa eremuetan lanak egingo dituzte edateko uraren hornidura sarean indartzeko eta honen zerbitzua hobetzeko. Elikadurako eta Landa Garapenerako sailburuordetzak eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza departamentuek elkarlanean finantzatzeko dituzte lanak; Berrizko Udalarik 26.961, 18 euroko diru laguntza emango diote. Lanak Construcciones Lasuen enpresari esleitu dizkiote, 41.478, 74 euroan. Hain zuzen ere, Okango auzoko hornidura sarean konektatuko dira, hornidura indartzeko eta bermatzeko. Jarduketa NPB 23-27 Plan Estrategikoaren barruan sartzen da.

NPB Nekazaritza Politika Bateratua da, eta horren bitartez Europar Batasunak nekazaritza eta abeltzaintza babestu, elikagaien hornidura bermatu eta nekazarien errenta egonkortzen du.



Okango auzoa. BERRIZKO UDALA

TONTOLAPIKO

2026

UMORE IKUSKIZUNEN
MARATOIA

EGUNA

APIRILAK 3
DURANGO

LANDAKOGUNE
INGURUAN

DEBALDE

12:00 ETA 19:30

CIE BENOÎT CHARPE
(FRANTZIA) "LES ZÉLES D'OBUS"

12:30, 14:00, 16:30, 18:00 ETA 19:00

KARRIKA ANTZERKI TALDEA
(DURANGO) "PARKINGDARRAK 2"

13:15

LAS POLIS
(FRANTZIA-KATALUNIA) "LAS POLIS"

17:00

JOSE LUIS REDONDO
(ASTURIAS) "ARRIBA"

18:15

CIA JIMENA CAVALLETTI
(VALENTZIA) "B.O.B.A.S."

Euria bada:
LANDAKOGUNEA

Elorrioko Udalak hainbat kale eta bide asfaltatuko du datozen egunetan zehar



Jarduketa egingo den gunetarik bat.

J.D. ELORRIO

2025eko aurrekontuetan jaso zenari jarraituta, Elorrioko Udalak asfaltatze lanak hasi zituen joan zen aste amaieran. Azken urteetako joerari jarraituta, diru partida "esanguratsua" erabiliko dute udalerriko bideen egoe-

ra hobetzeko, udalak ohar batean zehaztu duenez; orain, 100.000 euroko inbertsioa egingo dute. Lanak martxoaren 12an hasi ziren eta 20 eguneko iraupena izango dute. Beraz, martxoaren amaieran edo apirilaren hasieran amaitzea aurreikusten dute.

Jarduketa nagusiak

Asfaltatze lanak herriguneko zein landa eremuko hainbat gunetan egingo dituzte. Herri eremuan Urkizuaranen, San Agustineko industrialdean eta Argiñeta etorbidean egingo dituzte obra nagusiak. Eta landa eremuan Gaztañeta, Aramiño eta Arriarte izango dira esku-hartze nagusien gunek.

Udalak aurrera eramango dituen lanak ez dira asfaltatze mugatuko bakarrik. Horrez gainera, hobekuntza puntualak egingo dituzte hainbat gunetan, hala nola Goieta, Morgaondo, Angio, Areistiortu, Aldape, Ibaikua, Padura eta Besaide kaleetan.

"Jarduketa hauen helburua bideen segurtasuna eta erabilgarritasuna hobetzea da", adierazi du udalak ohar batean, eta herritarren ulermena eskatu du lanek eragin ditzaketan eragozpenen aurrean.

Izurtzako Udalak zabor edukiontzien gunea atondu du

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak hobetze lanak egin ditu udaletxearen eta tabernaren atzeko aldean dauden zabor edukiontzien gunean. Edukiontzien azpiko aldeko zorua zulatuta zegoenez, arratoiak batzen zirela azaldu du udalak. Beraz, inguru hura garbitu eta hormigoia bota dute. Udalak edukiontzia modu ego-

kian erabiltzeko eskatu die herritarrei. "Zabor gunea batzuetan, han egon behar ez liratekeen gauzak uzten dira, plastikoa eta arropa, esate baterako. Material bakoitzak bere edukiontzia du eta Garbigunea ere horretarako da, askoratiko materiala modu egokian bildu eta birziklatzeko", azaldu du Oihane Irastorza alkateak.



Udaletxearen atzealdeko zaborrontziak dauden zoruan hormigoia bota dute.

Aretoa bete egin zen Mañariko berbaldian

J.D. MAÑARIA

Joan zen egunenean, berbaldi bat egin zuten Mañarian aurretiazko borondateen inguruan, eta ikusmin handia eragin zuen. Kultur etxeko aretoa bete egin zen adituen azalpenak entzuteko. Aurretiazko borondateak zer diren, zertarako balio duten eta zelan egin daitezkeen azaldu zuten, besteak beste, eta bertaratutako herritarren zalantzak argitu zituzten.



Berdintasun Planari buruzko galdetegi atera dute Atxondon

J.D. ATXONDO

Atxondoko Udalean Berdintasun Plan berria (2027-2032) prestatzen hasi dira eta galdetegi bat egin dute herritarren ekarpenak jasotzeko. Galdetegi udalean eta liburutegian dago eskuragarri eta martxoaren 30a da azken eguna betetzeko, udalak sare sozialetan iragarri duenez. Bertan, etorkizuneko Berdintasun

Planaren gaineko iritzia eman daiteke; besteak beste, berdintasunaren arloan jorratu behariko liratekeen gaiak lehenetasunen arabera aukeratu daitezke, eta herrian genero berdintasuna bultzatzeko zer gehiago antolatu litekeen proposatu daiteke.

Lehenengo fase honen ondoren, hainbat lan saio egingo dute herriko eragileekin. Segidan, jasoriko informazio guztia sailkatu eta landu egingo dute Berdintasun Plana osatzeko. Azkenik, plan berria herritarrei aurkeztuko diete.

PABILIOIA SALGAI
lurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE

ERAGILEAK

ELEXPE

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

Sindikatu- esanetan, grebak "oso jarraipen zabala" izan du eskualdean

Sindikatu-
ek eta behargine-
k agenda politiko-
an sartu
dute gutxieneko
soldata 1.500 euro-
an ezartzeko
eskakizuna: "Durangal-
deko eta Euskal Herri-
ko langileak ez gaude
prest prekaritatea onart-
zeko"

Ekaitz Herrera DURANGALDEA
ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatu-
ek deituta, Du-
rangaldeko behargin-
ugarik bat
egin zuten atzoko greba oroko-
rragaz. Lanuztearen eragina
lehenengo ordutik igarri zen,
grebalaria-
k eskualdeko errepide
nagusietara irten ziren-eta pro-
testan. 07:00etan N-634 errepide-
a blokeatu zuten Zornotzan, Iurre-
tan, Abadiñon, Berrizen eta Zal-
dibarren. Durangoko ELA eta
LAB sindikatu-
ek adierazi dute
beharginek "oso babes zabala"
eman diotela grebari. Eguerdian
Bilboko kaleetan manifestatu
ziren, eta eskualdeko hainbat
herri-
tan mobilizazioak egin zi-
tuzten arratsaldean.
Grebarako arrazoi-
en artean
honako hauek azpimarratu zi-
tuzten: "Bizimodu-
a garestitu
arren, soldata-
k neurri berean
igo ez izana," eta, horrenbestez,

"aberastasu-
naren banaketa ge-
roago eta modu bidegabeagoan
izatea". Hori horrela, sindikatu-
k deitzaileek 1.500 euroko gutxi-
eneko soldata ezarri gura dute
Hego Euskal Herrian. Eta era-
baki hori Araban, Bizkaian,
Gipuzkoan eta Nafarroan hartzea
gura dute, Eusko Jaurlaritzaren,
Nafarroako Foru Erkidegoaren
eta enpresarien elkarte-
en bitartez.
ELAko Uribarri Irigorasek
adierazi du atzoko greba egunak
mezu bat uzteko balio duela: "Ez
dugu Madrilek inposaturik
gura. Hemen bizi gara, hemen
lan egiten dugu eta hemen era-
baki gura dugu. Prest gaude
gure eskubideen alde borroka-
tzeko". LABeko Garazi Biterik
Confebasken "blokeoa" salatu
du, sindikatuak bilerak eskatu
arren patronalak "etengabe uka-
tu" dituelako.



Piketeak Elorri-
on, lehenengo orduan. ELA



Zaldibarko grebalaria-
k N-634 errepide-
a moztu zuten, norabide bietan. LAB



Ibilgailuak ez atzera ez aurrera geratu ziren lurretako Bidebarrieta etorbidean.



Grebalaria-
k bengalak eskuetan ibili ziren Berrizko Eitua industrialdean. LAB



Askotariko aldarriak entzun ziren.



Egunsentiko mobilizazioak nabarmen igarri ziren Boroan. ELA



Grebaren aldeko pintada bat Durangon. ELA



Abadiñon manifestazioa egin zuten San Blas hoteletik Lebariora. LAB


Okm batzen gaituen distantzia

 **ANBOTOKIDE**
 **MARTXOKO ZOZKETAK**


Arriola
Antzerkia euskaraz
"Zerbait sartu zait begian"
(Imanol Epelde)
Martxoak 27



Zornotza Aretoa
Antzerkia euskaraz
R&J (La Dramática Errante)
Martxoak 27



Xiberu tabernan
(Zornotza) gosari bikoitz bil.



BASA take away
jatetxeke KMO haragidun
eta ogi artisaudun hanburgesa
eta bi saltsadun patata
errazioa opari. Bariku eta
zapatu gauetan gozatzeko.

EGIN ZAITEZ **ANBOTOKIDE**
ETA **PARTE HARTU**
GURE **ZOZKETETAN!**



Abadiñoko Gestamp enpresak 280 lanpostu murriztuko ditu datozen bost urteetan



Gestamp enpresak Abadiñon duen egoitza.

Jone Guenetxea ABADIÑO

Albiste kezkarria dator Duran-
galdeko automozioaren sekto-
retik. El Correo egunkariak
joan zen barikuan jakinarazi
zuen, Abadiñoko Gestamp
enpresak 280 lanpostu murriz-
teko asmoa du datozen bost
urteetan. Hedabide horren ara-

**Hauxe da bertako
ordezkaritza
sindikala: LABek 14
ordezkari, UGTk 4
eta CGTk 3**

bera, "Mercedesen furgoneta
berriaren piezak Abadiñoko
enpresari ez esleitzeak lan kar-
ga murriztuko du eta zuzenda-
ritzak borondatezko irteerak
planteatu ditu". Gaur egun 700
bat behargin dabilta lanean
Abadiñoko enpresan.

Berria jakin bezain laster,
ANBOTO hartu-emanetan ipini
zen Gestampek enpresa komi-
teagaz, eta "oraingoz" gaiaren
inguruan adierazpenik ez egitea
erabaki dutela azaldu zuten.
Hauxe da bertako ordezkari-
tza sindikala: LABek 14 ordezkari,
UGTk 4 eta CGTk 3.

El Correo azaldu zuenez,
LABek eta UGTk "ontzat" eman-
go lukete enpresaren proposa-
mena. "Enpresak borondatezko
bajak planteatzen ditu eta bi-
degabeko kaleratzeek legezko
kalte-ordaina jasoko lukete,
30.000 euroko gehigarri batez,
80.000 eurora arte", argitu du
hedabide horrek.

Kaltetuek salatu dute Abadiñoko Udalak "elkarrizketarik barik" egin dituela Zeuseko garajeen birkalifikazioak

J.G. ABADIÑO

Jatako eremuan dagoen Zeus
garaje-komunitateko kideek bat-
zarra egin zuten atzo. Inguru
horretako kaltetuek salatu dute
udal gobernuko taldeak "inposatu"
egin duela orubea bizitegi-lur-
zoru bihurtzea. Bertako 70 bat
jabek ohartarazi dute orubea
botatzeak "kalte funtzional handia"
eragingo liekeela, "baita ondarezko
kalte larria ere". "Ez da aurkeztu
instalazio horiek kentzeko beharra
bermatzen duen justifikazio tekniko nahi-

korik, eta ez dira aztertu hain
kaltegarriak ez diren alternati-
bak", gaineratu dute.

Zubibitarte 6ko garaje-komu-
nitateak adierazi du udalak ez
duela euren alegazioa onartu.
"Esan digute 70 pertsonak ez
dutela proiektua geldiaraziko.

Auzokideen kexari erantzuna
emateko, Abadiñoko Udalak bat-
zarrera deitu du martxoaren
24rako. "Denon arteko elkarla-
nagaz, formularik onena aurki-
tzen jakingo dugun itxaropena
dugu", azaldu du udalak.



Zubibitarteko kaltetuek batzarra egin zuten joan zen egunean.

Erromeria eta triki-poteoa Korrikaren barruan Mallabian



Aurreko edizioko argazki bat.

M.Z. MALLABIA

24. Korrika dela eta, Mallabian
egitarau zabala antolatu dute.
Ekitaldirik gehienak martxoaren
27an, 28an eta 29an izango
dira. Hilaren 27an Korrika
Txikia egingo dute, 16:00etan
txokolatada, eta 18:30etik
20:00etara bitartean Gauargi
erromeria. Martxoaren 28an,
19:00etan, triki-poteoa egongo
da Joanes Illarregigaz eta Ene-
ritz Artetxegaz, eta 22:40an
Korrika helduko da herrira.
Bestalde, martxoaren 29an bin-
go berezia egingo dute, besteak
beste.

Zaldibarko zabortegiko segurtasun neurrien egoerak kezka piztu du

Egoera "kezagarria" da EH Bilduren iritziz; Zaldibar Argitu plataformak elkarretaratzea egin zuen joan zen domekan

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Ikuskaritza batek 29 arau-hauste identifikatu eta gero, EH Bilduk Eusko Jaurlaritzari galdetu dio ea zein neurri hartuko duen Eitzagako hondakindegiko segurtasuna bermatzeko. "Lixibiatuak inguruko errektara iragazten dabilta, eta, horrez gainera, gas isuriak ere gertatzen ari dira", gogorarazi du koalizio subiranistak. Horrek guzti horrek Eitzagan, Ermuan, Eibarren eta inguruko herrietan "arazo larriak" sor ditzakeela eta, hainbat galdera eta eskae-

ra erregistratu dute Legebiltzarrean. Halaber, Ander Goikoe-txea legebiltzarkideak Verter Recycling enpresak zeintzuk neurri hartu dituen galdetu dio Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailari. Enpresari zigor espedienterik zabaldu ote dioten ere galdetu du Goikoetxeak. Horrez gainera, uren neurketen berri ematea eskatu du.

Egoera "kezagarria" da EH Bilduren iritziz, azpiegitura "guztiz utzita" dagoelako egon-kortze lanak egin zirenetik.



Zaldibar Argituk joan zen domekan egindako elkarretaratzea.

Zaldibar Argituren adierazpena

Zaldibar Argituk "onartezina" deritzo 29 hutsegite jasotzen dituen txosten teknikoa 5 hila-betean "ezkutuan" mantentzea-ri: "Eusko Jaurlaritzak herritarrak informatu beharko lituzke,

are gehiago inguruko bizilagunen osasuna eta segurtasuna arriskuan dagoenean", esan zuen plataformak, joan zen domeka-ko mobilizazioan. Halaber, Eusko Jaurlaritza "arduraz jokatzera" deitu dute.

Zaldibarko EAJk eremu publikoen "utzikeria" kritikatu du

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko EAJren esanetan, herriko berdeguneek eta parkeek "okerrera" egin dute "utzikeria" dela eta. Herritarren artean "ezin-negona" sortzen dabilela diote, eta jakinarazi dute hainbatek jo dutela udalera idatzizko kezak aurkeztera. Eguzkialden, adibidez, hondakinak "hilabetez" kendu barik egoten direla diote; Zaldue-ran eta Miren Maortua kaleetan, "maiz" errepikatzen direla "argiz-tapen arazoak". Eneritz Azpitar-te alkateak erantzun du udala "beti" egon dela arazoan gainean. "Udalak garbitzeko eta manten-tzeko lanak planifikatzen ditu, baina denon betebeharra da ere-mua zaintzea", gaineratu du.

Sukaldaritza saio arrakastatsua Garain



TRUMOIITE

E.H. GARAI

Joan zen astean Garaiko sukaldaritza tailerrean batu zirenek bapo-bapo amaitu zuten: "Ez geunden ardi esneagaz kozinatzen ohituta eta harrituta geratu ginen zein errezeta gozoak egin daitezkeen ikusita", esan dute Trumoiiteko kideek. Hurrengo sukaldaritza saioa ekainaren 11n egingo dute. Pasta freskoa kozinatuko dute.

Otxandion Mainondoko kirolgune berria inauguratuko dute asteburuan

A. Basauri OTXANDIO

Otxandioko Mainondoko kirolgune berria azarotik dago erabilgarri, baina asteburu honetan inauguratuko dute. Hartara, erabilera anitzeko futbol zelaia, pump track zirkuitua eta kalistenia parkea biltzen dituen azpiegiturak hainbat kirol jarduera hartuko ditu gaur hasi eta domekara bitartean. Zapatuan, ekitaldi berezia egingo dute, 12:15ean. Udal ordezkariak eta Otxandioko kirol taldeetako ordezkariak parte hartuko dute bertan.

Askotariko kirolak

Pilota eskolako partiduek eta IV. Frontenis Txapelketak abiatuko dute egitaraua, gaur. Bes-

talde, Bizkaiko Errugbi U8 Topaketa eta futbol partiduak antolatu dituzte zapatarako. Domekan, Durangoko Txirrindulari Eskolak egingo duen erakustaldiagaz hasiko dute eguna. Pump track-ean izango da, 11:00etan; ondoren, ginkana egingo dute bizikletekin. Egitaraua borobiltzeko, beterranoen futbol partidua jokatuko dute. Domekan izango da, 12:00etan.

Kirolgune berria herriko kirol eragileekin, hezkuntza komunitateagaz eta haurrek egindako ekarpenekin elkarlanean gartu dute, udal ordezkariak azaldu dutenez. "Denen beharrianak eta ideiak kontuan hartu dira", gaineratu dute.

Berdintasun Zerbitzua eskainiko dute Iurretan, hilero

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak Berdintasun Zerbitzua ipini du martxan, berdintasun gaiak herriratzeko eta herritarren ardurak eta kezak argitzeko helburuagaz. Halantxik jakinarazi dute udal arduradunek. Malena Gonzalez Altuna berdintasun teknikariak emango du arreta zerbitzu hori, Ibarretxe kultur etxean, hile bakoitzeko bigarren egunetan. Berdintasun Foroa indartzeko ardura ere hartuko du.

Kultur etxeko bigarren solairuan emango dute zerbitzua, 10:00etatik 13:30era, argitu dutenez. Honako helbide elektronikora ere idatzi daiteke: berdintasuna@iurreta.eus

+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen

Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak

Zenbat dakizu Korrikari buruz?

Bihar hasiko da 24. Korrika, martxoak 19. Horren barruan, ANBOTOK lehiaketa ipini du martxan. Martxoaren 25era arte, herritarrek www.anboto.org atarian dagoen lehiaketako galderei erantzuteko aukera izango dute. Lehiaketa hamar galderaz osatuta dago. Irabazle guztien artean, 24. Korrikako produktu sorta zotz egingo dugu.



Aurreko edizioko argazki bat.

DURANGALDEA ASTEON

Durangaldeko Txistulari Egunaren 70. urteurrena ospatu dute Abadiñon

ABADIÑO Jaizale txistulari elkarteak Durangaldeko Txistulari Egunaren 70. urteurrena ospatu du asteburuan Abadiñon, eskualdeko lehenengo txistulari eguna egin zen herrian bertan. 70 musikarik kontzertua eman zuten probalekuan, jai giro ederrean.



Zelaietako kalejiran ataratako argazki bat.

VIII. Filosofia Olinpiadetako Dilema ataleko sari nagusia, Abadiñora

ABADIÑO Agora Filosofia Elkarteak Jaurilaritzaren laguntzagaz antolatutako VIII. Filosofia Olinpiadak egin zituzten Gasteizko Lakuan. Abadiño BHIko Briany Marcela Castro ikasleak Dilema ataleko lehenengo saria lortu zuen.



GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa /
/ Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

Hau al da kirola sustatzea?



**HERRIAREN ESKUBIDEAK
INDEPENDENTEAK**

Hilabeteak daramatzagu Durangoko udal gimnasia joaten. Edo, hobeto esanda, saiatu nahian. Makineria aspalditik dago hondatuta, eta denbora luzea darama konpondu gabe. Denbora aurrea doa, baina arazoak hor jarraitzen du. Bitartean, udalak —EAJ eta PSEren gobernupean— eten gabe zabaltzen ditu mugikortasun iraunkorraren, herri osasuntsuen eta kirola sustatzearen inguruko mezua. Diskurto ederrak eta kanpaina atseginak. Baina errealitatea bestelakoa da: udal gimnasia, konpondu gabe.

Ez da kexa txiki bat. Diskurtsoaren eta eguneroko kudeaketaren arteko kontraesan nabarmena da. Bizimodu aktiboa sustatzen dela esaten da, osasun publikoa etengabe aipatzen da... baina herritarrok mugitzen garen espazioak mantentzeko ordua iristen denean, kudeaketa desgertuta dago. Herriaren Eskubideak egoera hau salatu du dagoneko. Durango Kirolak-eko kudeaketa txarra ez da kasualitatea; gobernatzeko modu baten ondorioa da. Udal gimnasia existitzen da, hain zuzen ere, kirola pribilegio bat izan ez dadin. Gimnasio pribatu bat ordaindu ezin duenak ere bere espazioa izan dezan. Eta espazio horren mantentzea baztertzen denean, mezua argia da: kirola ordaindu dezakeenarentzat dela.

Horregatik, eskatzen duguna ez da aparteko ezer: publikoa eta denona dena zaindu eta mantentzea.

anboto

ARGITARATZAILEA
Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Zuzendaria
Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua
Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa
Itziar Belar Zubizarreta.
Publizitatea
Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa
Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.
Marketina
Defie Izaga Yeregui.

Maketazioa
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea
Mikel Azkarraga Etxegibel.
Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua





OSTALARITZA gida.

Iragarkia ipini gura
baduzu, deitu
688 731 402 zen-
bakira

XIBERU

 Xiberu Taberna
 xiberutaberna



Zezilia Gallartzagoitia, 9 ZORNOTZA
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

GAUARGI

 gauargitaberna



Dantzari, 4 behea IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

OLAJAUREGI

 Hotel Olajauregi
 hotel_olajauregi_jatetxea



Kurutziaga, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864

Dastatzeko menua 50
Karta / Taldeko menuak.
Galdetzeko deitu edo webean begiratu.

IBAIZABAL




Ibaizabal taldea, 2B DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.
Ostiraletan pintxopotea!


BURUARI KLIK!

ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko irudi bakoitzari?



LABIRINTOA





Durangaldeko
Okm gida

Zabaldu zure negozioa lau haizeetara

*Durangaldeko OKm gida
erakusleihu ezin hobea duzu
eskualdeko merkataritza
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konpromiso
barik 688 731 402 telefonoan*

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*

www.anboto.org/gida





Artetxe, Goya saria eskuetan duela.

ZINEMA

"Sariek ateak zabaltzen dituzte, baina ahoz ahokoak gehiago laguntzen du"

UXUE ARTETXE
ZINEMAGILEA

Durangarrak animaziozko pelikularik onenaren Goya saria jaso du, eta bere lantaldeak 'Decorado' filmagaitik

Aritz Maldonado DURANGO

Goya saria jaso eta gero, Uxue Artetxe durangarra buru-belarri dabil *Nora eta Anbotoko dama* estreinako lanaren prestaketa lanetan.

Egun dezente joan da Goya saria jaso zenuenetik. Ajea atzean utzita daukazu?

Lantaldekoak oso pozik gaude. Aurretik, Europako hainbat jaialditan egon gara eta sariren bat ere eraman dugu, baina, jakina, Goya sariek ospe handiagoa dute. Espektatiba handirik barik joan ginen, eta gure izena esan zute-

nean oihuka eta saltoka hasi ginen. Itzela izan zen.

Geroko jaian ere oso gustura egon ginen eta jende asko etorri zitzaigun zorientzera. Aurten, gainera, euskal ekoizpen mordoa egon da, eta, beraz, talde handia elkartu ginen jai hartan. Oso interesgarria izan zen, beste ekoizpenetako jendea ezagutu genuelako. *Maspalomas* eta *Los Domingos* pelikulek ere Goya saria irabazi zuten, eta, beraz, pozik amaitu genuen.

Animaziozko pelikulek publiko helduagoa dutela esango zenuke?

Frantzian eta beste herrialde batzuetan horrela izan da orain arte, eta badirudi animaziozko pelikulak umeengandik eta haien gurasoengandik harago doan publiko batentzat ere badirela. Joera hori izan dugu azken urteetan. Aditu edo kritikoez ondo ulertu dute hori, eta orain publiko helduarengana heltzea izango litzateke hurrengo urratsa.

Komikiekin ere antzeko joera gertatzen dabil.

Bai, eta geroago eta gehiago esango nuke. Komikigintzan lan

egiten duten marrazkilari klasisikoek hobeto ezagutzen dute oinarria gero zineman lan egiteko. Hasieran trebatu egin behar dituzu programak erabiltzen ikasteko, baina gero erabaki bikainak hartzen dituztela ikusten duzu. Hori bai, Euskal Herrian eta Espainian ez dago zinemara dedikatzen den hainbeste marrazkilaririk, eta batzuk, gainera, nagusiak dira.

'Decorado'-n layout arduraduna izan zara.

Egia esanda, denetik egin dut, departamentu guztietan egin

dut zeozer, eta esango nuke horrek lagundu egiten duela. Teknologia ezagutzen dut, eta horrek ere laguntzen du; gainera, trebatzen eta hobetzen ahalegintzen naiz. Hori beti da onuragarria zenbait proiektutan parte hartzeko. *Decorado* filmeko arte zuzendaria, Jose Luis Agreda, lanez gainezka zebilen eta deitu egin zidan, konfiantzazko norbait behar zuela eta. Arlo guztiak ikutzen zituen norbait behar zuen, eta, hain zuzen ere, aurreko produkzioetan ere hala aritu nintzen. Beraz, Joseren alboan ibili naiz lanean, hainbat gauzatan. Animatezaileek artista teknikari bat behar zuten, eta horretan ere lagundu nuen. Geroago eta pertsona gehiago dabil prestatzen animaziozko zinemarako, bai unibertsitateetan eta baita bestela ere, baina, hala ere, ez dago honetara dedikatzen den jende askorik,

'Robot dreams' filmagaz Oscar sarietarako izendapena jaso zenuen. Horrelako sariek ateak zabaltzen laguntzen dute?

Bai, baina ez hainbeste. Hau da, zabaltzen dituzte, jendeak pelikulak ikusteko balio duelako, baina, batez ere, ahoz ahozkoak laguntzen du. Horrelakoetan, non lan egin duzun ikusi daiteke, baina jendeak, eta batez ere ekoizleek, zelan lan egiten duzun jakin gura izaten dute. Talde lanean efizientea izateak, esaterako, asko laguntzen du.

ANTZERKIA

Durango "tontolapikoz betetzeko" bosgarren saiakera, apirilaren 3an



Artistak eta udal ordezkariak, aurkezpenean.

Aritz Maldonado DURANGO

Ikuskizunik ikuskizun eta barrerik barre, Tontolapiko Egunak bosgarren edizioa beteko du aurten. Hain zuzen ere, apirilaren 3an egingo dute edizio berria. "Aurtengoa inoizko edizioz txarrena izatea espero dugu. Geroago eta okerrago egiteko ahaleginetan gabiltza, eta oso pozik gaude ekimena izaten ari den erantzunagaz", azaldu du Cecilia Paganinik, berezkoa duen umoreagaz. Gorka Gansogaz batera osatzen duen Ganso&Cia konpainiak antolatzen du Tontolapiko Eguna, Durangoko Udalaren laguntzagaz. "Jende uholdea etorriko delakoan gaude eta aurreko urteetan legez jende pilaketak aurreikusten ditugu Durangon", gehitu zuen aurkezpenean Gansok berak.

Edizio borobil honetarako, bost konpainiaren hamar emeraldaldi egongo dira ikusgai. Konpainia bi, —Benoit Charpe eta Las Polis— Frantziatik etorriko dira Durangora, eta Jose Luis Redondo Asturiastik. Aurreko edizioan, Jimena Cavallettiren emeraldia bertan behera geratu zen euriaren ondorioz, eta aurten beste aukera bat ematea erabaki dute antolatzaileek. "Bere lanak ehorzketa bat du oinarri eta nahitaez eguraldi ona behar du antzezteko. Eguraldi txarra eginez gero, gainerako emeraldia Landakon egingo dituzte, baina hau berriro bertan behera geratuko litzateke", nabarmendu zuen Gansok. Bestalde, Durangaldeko Karrika konpainiak *Parkingdarrak* emaldiaren bigarren zatia prestatu

du Tontolapiko Egunaren edizio honetarako; bost emeraldaldi egingo dituzte, eta kasu honetan doakoa den arren, aurrez sarrera hartu beharko da informazio gunean, egunean bertan.

Food truck-a ere bai

Ganso&Cia konpainiako kideek egun osorako plana antolatu gura izan dute, beste urte batez. "Maratoi formatu honegaz, egun osoko plana egiteko aukera eskaini gura dugu, eta, horretarako, KemeKomoko lagunak izango ditugu gurean, iaz legez. Inguruko tontolapiko guztiak daude gonbidatuta", gehitu zuten. "Aste Santuko garaian ospatzen denez, Durango bizitzeko eta gozatzeko beste erakargarri bat da", azaldu zuen Paule Sanchez zinegotziak.

DANTZA

Durangoko L'Atelier konpainiak 45 sari batu ditu lehenengo hiru txapelketetan

L'Atelierreko kideek Madrilen, Basaurin eta Elorrioren izan dituzte txapelketak

A. M. DURANGO

Durangoko L'Atelier dantza eta arte eszeniko eskolak indartsu hasi du denboraldia. Urtea hasi denetik, taldeak hiru txapelketatan parte hartu du, Madrileko Vivanza, Basauriko (Bizkaia) Raw, eta Elorrioko Akadantz lehiaketetan, hain zuzen ere, eta dozenaka domina, beka eta sari berezi eskuratu dute bertan. Oiane Azconizaga, Leire Cotoré eta Ethan Lopez irakasleek gidaturiko taldeak dantza klasiakoaren, garaikidearen eta dantza urbanoaren kategorietan lehiatu ziren. Madrileko Vivanza txapelketan lorturiko arrakasta nabarmentzekoa da. Dantza klasiakoaren alorrean bost urrezko domina lortu zituzten: BabyStars (haurren mailan), PetitStarlights (junior), June eta Aitor bikoteak, eta Nora Garatek eta Intza Canok bakarka. Horiez gainera, Mara Urigüenek eta Oiane Azconizagak ere sari berezi bana jaso zuten, dantzari bereziaren saria eta koreograforik onenaren saria, hurrenez hurren. Dantza garaikideko MiniShock eta Boomlight taldeek ere urrea lortu zuten, eta Intza Canok, Aitor Hernandezek, Laida Urigüenek eta June



Elorrioko Akadantz lehiaketako argazki bat. L'ATELIER

Gabilondok Danza 180º formakuntza beka jaso dute.

Bestalde, Basauriko Raw txapelketan ere emaitza bikainak lortu zituzten. Dantza garaikidean, MiniShock junior, Boomlight Youth eta BoomShock Absoluta taldeek lehenengo postua eskuratu zuten; bestalde, bakarka eta bikoteetan Intza Cano, Jhon Enciso, MiniStars eta Kombo nagusitu ziren. Encisok, gainera, Raw sari berezia eta WOSAPerako beka lortu zituen. Urbanoan, Slipers Wet Floor eta Sliperitos taldeek urrea eskuratu zuten.

Akadantzen sari bikoitza

Urte hasiera borobiltzeko, eskolako talde bik garaipena lortu zuten Elorrioko Akadantz. BoomShock taldeak kategoria moderno absolutuan irabazi zuen, eta Slipers taldeak hiri-dantzako junior mailan; emaitza honegaz, BreakOnStage jaialdi entzutetsurako sailkatu ziren. Azken sari bikoitz honegaz, L'Atelier konpainiak erakutsi du bide onean doala aurrean dituzten lehiaketei begira. Apirilaren 25ean izango da, Barakaldon.



Hitzez eta Ahotsezeko kideak.

LITERATURA

Urte biko etenaldiaren ondoren, Hitzez eta Ahotsez bueltan da, hitzordu bigaz

A. M. DURANGO

Urte biko atsedenaldiaren ondoren, Hitzez eta Ahotsez indarberrituta bueltatuko da. Aurtengoa, hamargarren edizioa, hitzordu bikoitzagaz dator. Maiatzaren 15ean irakurraldi girotua Plateruenera itzuliko da. "Hasierako urteetako aterpera bueltatuko gara, Plateruenera epeletara", adierazi dute antolatzaileek. Parte hartu gura dutenek apirilaren 13ra arte izango dute aukera izena emateko. Hamargarren edizioan, aurreko urteetan erabilitako gaien "birpasa" egingo dutela iragarri dute antolatzaileek. Besteak beste, Joseba Sarrionandia, bidaiak, lurra, askata-

suneta eta umorea izango dira gaietarikoz batzuk. Ohikoa den moduan, musikari, bertsolari, antzerkigile eta abarrek girotuko dute irakurraldia. Aurreko urteetan legez, Imanol Larrinaga Larrañagak egin du ekime-nerako kartela.

Bestalde, irakurraldia baino hilabete lehenago, Hitzez eta Ahotsezeko eta Gerediaga Elkartek *Lourdes Iriondo. Ez gera alferrik pasako* dokumentala emango dute Durangoko Zugaza zineman, apirilaren 16an. Ikus-entzunezkoak Lourdes Iriondo artistaren ibilbidea du ardatz. Proiekzioaren ondoren, solasaldia egingo dute Inge Mendioroz zuzendariagaz eta Idoia Garzes gidoilariagaz.

GAI LIBREAN



GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO
DURANGOKO MUSEOA

Isilaraziak XXVII

Apirilaren 26ra arte dago ikusgai Durangoko Arte eta Historia Museoan *Giovanni Battista Piranesi. Erroma amestua* erakusketa. XVIII. mendeko artista italiarraren 50 grabatu ikus daitezke bertan, baita bere irakaslea izan zen Giuseppe Vasiren beste hiru grabatu ere. Azkenik, bere seme-alaben —Francesco eta Laura— grabatu bana ere bada erakusketan.

Azken artista honengan jarri nahi dut arreta, Laura Piranesi grabatzailearengan (Erroma, 1754–1789). Txikitatik hazi zen aitaren tailerrean, Erromako Strada Felicen (gaur egungo Via Sistina) kokatua. Ziurrenik aitak azaldu zizkion perspektibaren oinarriak eta grabatuaren teknikak, eta horri esker Laurak aitarekin lan egin zuen, bere anaia gaztearekin, Francescorekin, batera.

Biak izan ziren artista nabarmenak, baina aitak bakoitza arte mota desberdin batera bideratu zuen, haien jakin-minaren eta trebetasunaren arabera. Francesco prospekzio arkeologikora bideratu zuen, eta Laura, berriz, *veduta* edo hiri-bistak egitera. Halako grabatuak oso preziatuak ziren atzerriko turistentzat, eta garaiko moda eta joera hori oso ondo ezagutzen zuen Laurak.

Tamalez, 1778an Giovanni Battista hil egin zen, 58 urte zituela, eta ez zuen testamenturik egin. Erromako legearen arabera, seme nagusiak jaso behar zituen aitaren ondarea eta tailerra. Francescok, ordea, arreba oztupo gisa ikusi zuen; horregatik, ezkontzera bultzatu eta tailerra uztera behartu zuen. Laura 35 urte zituela hil zen.

Lauraren lana, ordea, ia inoiz ez da ezagutzera eman, eta hari buruzko idatzi eta ikerketa oso gutxi daude. Egia esateko, nik ere ez nuen haren berririk izan erakusketa prestatu genuen arte. José Ignacio Olaveren bildumako grabatuen artean Lauraren lan bat zegoela jakin nuenean, argi izan nuen erakusketan jarri behar genuela. Benetan harro sentiarazten nau XVIII. mendeko emakume italiar baten obra bat Durangoko museooko hormetan zintzilik ikusteak. Gainera, grabatua gertutik ikusita, haren maisutasuna nabarmen ageri da. Akuaforrearen teknikaren bidez testura aberatsak sortzen ditu, trebetasun handiz. Izandako oztupo guztien gainetik, bere burua artistatzat ikusten zuen; horregatik, bere lanak sinatuta daude: "Laura Piranesi inc", Laura Piranesi grabatua. Bere lana aintzatetsi zuen.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENeko EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

EGUAZTENA 18

- **ATXONDO 'Geuretik sortuak'** Geuretik sortuak proiektuaren hirugarren edizioaren uztia batzen duen erakusketa. Arte eta Historia museoa, apirilaren 26ra arte.
- **DURANGO Palestinari buruzko berbaldia** Taher Ali militante palestinarrak Palestinari buruzko berbaldia emango du. Otamotzena auzogunean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Piranesi. Erroma amestu'** Giovanni Battista Piranesi artista italiarraren hainbat lanen erakusketa. Arte eta Historia museoa, apirilaren 26ra arte.
- **IURRETA Kontzertua** Somak taldeak disko berriaren aurrerapen kantaren aurkezpena. Abadetxean, 19:00etan. Aurretik, 18:00etan, bilera irekia.
- **ZALDIBAR 'Yung Urkiolamendi'** Jone Ertziillaren lanak. Xerra espazioan, maiatzaren 31ra bitartean.
- **ZORNOTZA 'Emakume irakurleak'** Erakusketa, Zelaieta Zentroan. Martxoaren 27ra bitartean.

EGUENA 19

- **IURRETA 24. Korrika.** Atharratzera joateko autobusa, Maspen, 09:00etan. Itzulera, 17:30ean. (Izena eman behar da Gauargi tabernan).

BARIKUA 20

- **ABADIÑO Autodefentsa feminista tailerra.** Txanporta kultur etxean, 16:30ean
- **MALLABIA 'Euskal Herriko Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite txapelketako finala'.** Herriko frontoian, 19:00etan.

ZAPATUA 21

- **ABADIÑO Dantza egonaldia** Aiko dantza taldeak dantza egonaldiak egingo ditu 20. urteurrena ospatzeko; martxoaren 21ean eta 22an. Interesdunek 622 589 632 telefono zenbakian hartu dezakete lekua. Urkiola Hotelean.
- **ABADIÑO 'Perfectos desconocidos'** Pablo Genovesek zuzendutako antzezlan. Errota kultur etxean, 19:00etan.
- **DURANGO 'Oihu bat Palestinara'** Elkartasun kontzertua. Ahmed & Nur, Anari, Belako, Bengo, Borla, Chulería, Joder!, Dena, Ezezez, Eire, La Furia, Gailu, Hofe, Ibil Bedi, J Martina, Ke Lepo, Kiliki, Lukiek, Malakias, Maruxak, Merina Gris, Mursego, Naxker, Nize, Ødei, Olatz Salvador, Silitia, Mateo eta Zikuta & Calie taldeek eskainiko dute emanaldia. Honako hauek ere parte hartuko dute: Maialen Lujanbiok, Nerea Ibarzabalek, Antton Telleriak, Asier K-k, Amets Arzallusek, Txaber Altubek eta Nondik Inora Abiatuk (Nabiga Kolektiboa). Landako Gunean, 11:00etan hasita.
- **DURANGO AZOKA Naiz Market azoka** Zumalakarregin, 10:30etik 20:30era.
- **DURANGO Dantzaro** Dantzaldia Tipa taldeagaz. Andra Mariko elizpean, 19:00etatik 21:00etara.
- **IURRETA Bizikleta irteera** Santimamiñera irteera. lurretan 09:00etan. lurreta txirrindulari elkarte.
- **MALLABIA Frontenis txapelketa mistoa** Herriko frontoian, 09:00etan.

DOMEKA 22

- **DURANGO Zuhaitz Eguna** Iñurri Skaut taldeak antolatuta, 50 arbola landatuko dituzte.



ZORNOTZA Dantza Larrua proiektuaren barruan La Senior konpainiak aurkeztuko duen *You have an inner world, and so what?* piezak esperientzia eta heldutasuna aldarrikatzen ditu, dantzan dauden adinaren inguruko estereotipoak hautsita eta arteetan eta gizartearen edadismoari buruzko elkarriketa bultzatuta. Zornotza Aretoan, martxoaren 20an, 20:00etan.

Otamotzena parkean egin dute hitzordua, 10:00etan. San Andres basora ibilbidea egingo dute, 10:30ean. Animazio jarduerak eta arbolen landaketa, 11:15etik 13:00era. Hamaiketakoa, 12:30ean. Etxera buelta, 13:00etan.

• **IURRETA Bizikleta irteera** Marurira irteera. lurretan, 09:00etan. lurreta txirrindulari elkarte.

EGUENA 26

- **DURANGO 'Adineko emakumeen aurkako indarkeria: egiturazkoa, ezkutukoa eta berezia'** berbaldia, Iratxe Herrero gerontokriminologo, ikertzaile eta prestatzailearen eskutik. Kurutzesantun, 17:30ean.
- **MAÑARIA 'Kontu kantari'** ipuin kontaketa Ines Bengoaren eskutik. Liburutegian, 18:00etan.

BARIKUA 27

- **ABADIÑO 24. Korrika** Korrika txikia egingo dute, 11:00etatik 13:00etara. XXIII. Laburbira film laburren emanaldia: *Olentzerori eskatu nion + Erreka zoko hartan + Fischy + A-Maniky + Geratzen de hori + Orain zer? + Hortzikara,*

18:30ean, Txanporta kultur etxean.

• **BERRIZ 'Hurrengo geltokia'** Karrika antzerki taldearen antzezlan. Berrizko Kultur Etxean, 20:00etan.

• **DURANGO 'Despotorre'** Umorezko bakarrizketa transfeminista. Ane Lindanegaz eta Raquel Torregaz. Otamotzena auzogunean, 19:00etan.

• **DURANGO 'Bi istorio bi proiektu'** Ainhize Belar eskalatzailearen eta Josu Merino alpinistaren inguruko dokumentalak. Garazi Abaldeak mendia eta dantza uztartzen dituen saioa egingo du. Emanaldien amaieran luntxa egongo da. Ourdaybi elkarteak antolatuta, San Agustín kulturgunean, 18:00etan.

• **IURRETA 'Sar dadila kalabazan'** Ipuin kontaketa Ines Bengoa ipuin kontalaria eskutik. 3 urtetik gorako umeentzat (3-5 urtekoak heldu bategaz). Herri bibliotekan, 18:00etan.

• **IURRETA 'Rayanas'** Helduentzako ahozko narrazioa Irene Reinaren eskutik (Huelva). Herri biblioteka, 19:00etan.

• **ELORRIO 'Zerbait sartu zait begian'** Imanol Epeldek sortutako lana Geuretik Sortuak ekimenaren eskutik. Arriola antzokian, 20:00etan.

- **ZORNOTZA 'R&J'** Antzerkia euskaraz, La Dramática Errante konpainiaren eskutik. Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 28

- **ABADIÑO 24. Korrika** Uretako puzgarriak eta 50x4 erreleboak, Astolako igerilekuan, 11:00etatik 13:00etara. Kantu bazkaria, 14:30ean, probalekuan. Eingo taldea, 20:30etik 00:30era, Zelaietan.
- **ABADIÑO 24. Korrika** 'Egun On Sikiera' familia ikuskizuna Traña-Matienako frontoian, 18:30ean. Karaoke ibiltaria, auzoko kaleetan zehar, 20:30etik 00:30era.
- **BERRIZ 'Itsasoaren berbak'** Ipuin kontaketa, Ana Meaberen eskutik. Berrizko Kultur Etxean, 12:15ean.
- **DURANGO 24. Korrika** Herri afaria Landako Gunean, 21:30ean. Gero, Errota erromeria taldea. Txartelak Durangoko AEKn eta lurretako Gauargi tabernan.
- **GARAI 24. Korrika** Pankartak eta petoak margotzeko tailerra, 18:00etan. Herri afaria Otea-Lora elkartearen, 21:00etan. Martxoaren 26a baino lehenago eman behar da izena.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Baba Yaga eta sorginkerien liburua
Domeka 22: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Amarga Navidad
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapatua 21: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka 22: 17:00, 19:30.
Astelehena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.
Whistle. El silbido del mal
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapatua 21: 19:30, 21:30.
Domeka 22: 19:30.
Astelehena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Eguaztena 25: 19:00.
Torrente Presidente
Barikua 20: 18:00, 20:30.
Zapatua 21: 19:00, 21:30.
Domeka 22: 19:30.
Astelehena 23: 18:00, 20:15.
Martitzena 24: 18:00, 20:15.
Hoppers (2D)
Zapatua 21: 16:30.
Domeka 22: 17:00.
Hoppers (2D)
Zapatua 21: 17:00.
Domeka 22: 16:30.
20 curiosidades del bombardeo contra Durango
Eguaztena 18: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

'Lau haizetara' (film laburrak)
Eguaztena 18: 19:00.
Sorry Baby
Zapatua 21: 20:00.
Domeka 22: 20:00.
Astelehena 23: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Torrente presidente
Zapatua 21: 20:00.
Domeka 22: 20:00.
Astelehena 23: 20:15.
Baba Yaga eta sorginkerien liburua
Zapatua 21: 17:00.
Domeka 22: 17:00.
Matronas (JBG)
Martitzena 24:19:00.

FUTBOLA

"Barakaldon 100 partidu jokatzekak pozik eta harro sentiarazten nau"

EKAITZ MOLINA JAEN

BARAKALDO FUTBOL TALDEKO FUTBOLARIA

Erdilari abadiñarrak 100 partidu jokatu ditu Barakaldo futbol taldeagaz eta omenaldi txiki bat egin diote

JOSEBA DERTEANO ABADIÑO

Barakaldo lako klub historiko batean 100 partidu jokatu izana bada zeozer, baina zenbaki horiek zeozer gehiago gordetzen dute Ekain Molina Jaenen (Abadiño, 1990) ibilbidean. 2022an taldera batu zenean, Barakaldo Hirugarren RFEF Mailan zebilen. Ia lau urte geroago, Lehenengo RFEF Mailan dabil, koska bi gorago, eta igotzeko *play-off* postuan kokatuta.

Barakaldogaz sinatu zenuenean, itxaroten zenuen 100 partidutara heltzea?

Ba, ez. Heldu nintzenean, "partidurik partidu joan eta ikusiko dugu" pentsatu nuen, eta begira gauzak zelan joan diren! Barakaldo klub historiko bat da Bizkaian, eta bertan horrelako kopurura ailegatzea ez da erraza. Alde horretatik, pozik eta harro nago.

Taldeko jokalaririk beteranoetarikoa zara. Zelan doa denboraldi hau zuretzat?

Partidu guztietan jokatzeko moduan egon naiz eta hori seinale ona da 35 urteagaz. Urteak egin ahala, geroago eta gehiago kostatzen da, eta, arlo horretatik, pozik nago. Beharbada jokatzeko nabilen denbora kontuan hartuta, denboraldi ezberdina izaten ari da. Aurten arte oso presente egon naiz hamaikakoan, baina aurten ez nabil hainbeste jokatzeko. Beste arlo batzuetan laguntzen ahalegintzen naiz, kapitain legez taldea bultzatzen. Denoi gustatzen zaigu asko jokatzeko, baina hori entrenatzaileraren erabakia da. Ni pozik nago, fisikoki oso ondo nagoelako. Partidu batera ezin izan nintzen joan, txartel gorri bat ikusi nuelako, nire ibilbideko lehenengoa.



Lasesarren jokaturiko azken partiduan kamiseta berezia oparitu zioten. CD BARAKALDO

Aurten atera dizute zure ibilbideko lehenengo txartel gorria?

Bai. Gainera VARagaitik atera zidaten; epaileak falta baino ez zuen adierazi. Gero VAREan, irudia geratuta, izandakoa baino gehiago dirudi, baina, tira, horrela dira gauzak.

35 urteagaz zelan lortzen da fisikoki mailari eustea?

Asko zaintzen dut neure burua. Beste lan bat daukat, prestatzailer fisikoa naiz, eta asko jorratzen dut arlo hori. Ondo zaintzen ditut entrenamendu estrak, deskantsua, elikadura eta gainerakoak. Esango nuke horixe dela adin honetara fisikoki ondo heltzeko gakoa.

Barakaldogaz bizitako egoera biak zelan gogoratzen dituzu?

Igoera desberdinak izan ziren, testuinguruagaitik. Hirugarren mailatik bigarrenera igotzea apur bat derrigorrezkoa zen. Oso jokalarionak batu ginen, batzuk goragoko kategorietatik etorritakoak. Denboraldia amaitu baino hilabete bi lehenago lortu genuen igoera. Oso denboraldi ona izan zen, baina hasieratik geneukan erantzukizun hori. Gero, egia esanda, ez genuen espero bigarrenaz hain segidan

igotzea, baina urte borobila irten zitzaigun. Jokalari asko lehengoak ginen eta talde legez oso ondo funtzionatu genuen. Denboraldi biak kontuan hartuta, 49 partidu jarraian galdu barik eman genituen. Beste alde bat honako hau da: lehenengoan zuzenean igo ginen, eta bigarrenean kanporaketa jokatu genuen. Azken igoera horrek beste giro bat bizitzeko aukera eskaini zigun: aurreko egunak, zaleekin hartu-eman, Lasesarre zelaia beteta eta sekulako giroa. Gainera, joane-koan emaitza txarra lortu genuen eta etxean buelta eman genion gero. Itzela izan zen.

Urte hauetan guztietan lurretan bizi den Imanol de la Sota izan da entrenatzailea. Zelan lagundu du taldearen dinamika aldatzen?

Identitate bat markatu du. Barakaldon eskatzen den gauzatariko bat konpromisoa da, seku-

la ez etsitzea, eta taldean nortasun hori txertatzea lortu duela esango nuke. Taldeko lorpenen gakoetariko bat horixe izan da. **Zu zeu, Imanol de la Sota... Eskualdeko beste jokalaririk badabil taldean?**

Iker Pedernales Durangon bizi da. Bermeotarra da, baina bikotekidea durangarra du eta han bizi da. Imanol Torre abadiñarra ere bazebilen, baina abendutik Sestao taldean dabil.

Aurten, oraingoz, taldea bosgarren dago, *play-off* postuan.

Ondo gabilitza baina oso kategoria exigentea da eta ez dago konfiatzerik. Iaz ikasi genuen ikasgai hori. Bigarren itzulian bigarren postuan hasi genuen eta gero kostatu egin zitzaigun. Lau-bost talde oso puntu gutxiren barruan gaude eta partidu bakar batean postu dantza handia egon daiteke. Nik modu honetara ikusten dut: jaitsiera 11 puntura dugu eta eta gutxi falta zaigu salbazioa lortzeko. Horixe da klubaren lehenengo helburua. Hortik aurrera, ikusiko dugu zer datorren. Topikoa da, baina partidurik partidu joango gara.

Baduzu buruan erretiroa? Non eta noiz gertatu daitekeen?

Tira, adin batetik aurrera normala da buruan izatea. Hainbat jokalarik ikusi dut erretiroa hartzen, eta halakoetan nirea ere geroago eta gertuago ikusten dut. Denek diote futbola uzten denean, nahiz eta gero entrenatzaile jarraitu, ez dela berdina; egunerokotasun horren falta igartzen ei da, taldekideekin entrenamenduak partekatzea eta abar. Baina gaur egun egunerokotasun hori bizitzen nabil, eta futbolaz gozatzen. Denboraldia amaitzean, ikusiko dut zer gertatzen den.

Entrenatzaile izan gura zenuke?

Badaukat entrenatzaile titulua eta aukera bat da. Kapitain izateak badu zerikusia rol horregaz, eta nire ibilbidean tokatu izan zait hori bizitzea. Baina, tira, orain futbolagaz gozatzen nabil, zentratuta, eta baita prestatzailer fisikoki legez ere. Batek daki etorkizunak zer dakarren.



Ekaitz Molina, Barakaldogaz sarturiko gol bat ospatzen. CD BARAKALDO

"Aurten partidu guztietan jokatzeko moduan egon naiz eta hori seinale ona da 35 urteagaz"

"Gaur egun ez daukat erretiroa buruan; egunerokotasunean zentratuta nago"



Zapatuan etxean jokatu dute, Universitario Bilbaoren aurka. ELORRIO RUGBY TALDEA

Betsaide Elorrio errugbi taldeak segurtatuta ditu lidertza eta play-offa

J.D. ELORRIO

Betsaide Elorrio taldea denboraldi bikaina egiten dabil aurtenera. Euskal Ligako fase erregularra amaitzeko hiru jardunaldi falta direnean, segurtatuta dute lider amaitzea, eta, ondorioz, baita *play-off* postua ere. Tes-tuinguru horretan hartuko du Universitario Bilbao Taldea zapatua honetan, 17:00etan, Eloorrioko San Roke zelaian.

Orain arte jokaturiko 15 partiduetan ez du porrotik ezagutu: 14 garaipen eta berdinketa bat. Aurtengo denboraldiak iazkoaren traza du. Iaz ere ezin hobeto ibili ziren liga erregularrean, eta Euskal Ligako finala irabazita borobildu zuten denboraldia.

Bestalde, Durango Hirumet sailkapeneko seigarren tokian dago une honetan. Zazpi partidua irabazi eta beste horrenbeste galdu ditu orain arte.

Maila bat beherago, Zornotzako Urgozo oso ondo dabil. Amaitzeko hiru jardunaldiren faltan bigarren sailkatuta dago, jokaturiko 14 partiduetatik 12 irabazita.

Geurea, play offen bila

Emakumeetan, Eloorrioko, Urgozoko eta Arrasateko neskek osaturiko Geurea taldea kanporaketetara sailkatzeko borrokan sartuta dabil, hirugarren postuan. Durango Ermar taldea seigarren dago une honetan.

Abadiño Sokatira Taldeak domina bi munduko txapelketan

J.D. ABADIÑO

Abadiño Sokatira Taldeak lan bikaina egin zuen joan zen aste amaieran eta asteburuan Taiwanen lehiatutako munduko txapelketan. Domina bi irabazi zituen: zilarra gizonen 560 kilora artekoan, eta brontzea 600 kilora artekoan. Pisu txikian Italiako talde bat geratu zen txapeldun, eta Ameriketako Estatu Batuetako talde bat hirugarren. 600 kilotan Herbehereetako eta Taiwaneko taldeak geratu ziren lehenengo toki bietan. Hainbat tiralari Euskadiko selekzioagaz ere aritu zen. Zapatuan gizonen brontzezko domina eskuratu zuten 600 kilora artekoan, eta domekan zilarra 560 kilora artekoan. Domekan 23 urtez azpiko emakumeen txanda izan zen eta hauek ere domina bat lortu zuten.



Abadiño tiralariak podiumean.



Derio taldea bisitatuko du eguen honetan. KULTURALA

Lau gol sartuta, Durangoko Kulturala garaipenaren bidera bueltatu da

J.D. DURANGO

Durangoko Kulturalak poz galanta eman zien bere zaleei joan zen asteburuan etxean Touring taldea mendean hartuta. Kulturala hiru partidua segidan galtzetik zetorren eta Touring hirugarren sailkatuak bere azkeneko hiru neurketak irabazi zituen. Beraz, talde errenteriarren bisitak ez zirudien aukerarik aproposena bolada txarri amaiera emateko, baina Tabirara batutakoek garaipenagaz ez ezik gol festagaz gozatze-ko aukera izan zuten: 4-0.

Unai Arieta izan zen partiduko protagonista nagusietarikoa: gol bi sartu zituen, 5. eta 39. minutuetan, eta abantaila poli-

ta eman zion taldeari. Bigarren zatiko 74. minutuan, Diego Fernandezek aldea handitu zuen, eta partidua hondarrea Peio Fontalek ginga ipini zion talde osoaren lan onari. Touring taldeak jokalaria bat gutxiagotzeko amaitu zuen partidua, epaileak euren jokalaria bat egotzi zueneko 68. minutuan, baina, oro har, Kulturala gehiago izan zen ha- maikaren kontra ere.

Derioren aurka

Kulturala bederatzigarren dago orain. Eguen arratsaldean, hiru postu gorago duen taldea bisitatuko du: Derio. Deriok lau garaipen eta berdinketa bat lortu ditu azken bost partiduetan.

JOKALDIA



UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE
SASKIBALOA

Baskoniaren olatua

Saskibaloia dagokionez, Gabonetatik hona hainbat kontu aipagarri gertatu da.

Lehenengoa eta nabarmenena: Baskonia Kopako txapeldun. Egia esan, inork gutxi espero zuen halakorik. Hala ere, orain "forofogoitia" askok agertu dute beren profetia omen zela zuzena. Horregatik, garaipen honek balio bikoitza du: azken urteotan erdibidean geratu den proiektu bati bultzada emateko eta etorkizunerako oinarri sendoagoa jartzeko. Aupa Baskonia!

Surne Bilbao Basket ere une onean dabil, nahiz eta Burgosen aurkako porrotak segidako garaipenen bolada ederra eten duen.

Nesken saskibaloian, ordea, Emakumeen Ligako euskal taldeak ez dabilta hain ondo. Sailkapenari begiratuta, Gernika eta Araski beheko postuetatik

"Baskoniaren garaipenak azken urteetan erdibidean geratu den proiektuari bultzada emateko balio du"

"Ea olatuak gure gainerako taldeei indarra ematen dien. Horrelako lorpenek komunitatea indartzen dute"

ihes egiteko borrokan ari dira. IDK Euskotren, berriz, hasiera bikain hartatik (bost garaipen jarraian) urrun geratu da jada, eta azkenaldian sei porrot jarraian pilatu ditu. Badirudi aurtenera nabarmen igo dela ligako maila eta gure taldeak hori nabaritzen ari direla.

Bien bitartean, gure inguruko taldeek ere aurrera jarraitzen dute. Durangoko Tabirako Baque klubeko bi talde nagusiak lan bikaina egiten ari dira eta garaipenez garaipen dabilta. Horrela jarraituz gero, biek izango dute aukera mailaz igotzeko fasea jokatzeko; mutilen taldeak ditu aukerarik sendoenak hori lortzeko.

Ea Baskoniak eragindako olatu onak gure gainerako taldeei ere indarra ematen dien: batzuek mailaz igotzea lortzeko, eta beste batzuek, berriz, duten mailari eusteko. Izan ere, saskibaloizale asko gara eta horrelako albisteek komunitatea are gehiago indartzen dute.

GUARDIAKO BOTIKAK	
MARTXOAK 20, BARIKUA	
09:00-09:00	
Sarria, Sasikoa 17- Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 21, ZAPATUA	
09:00-09:00	
Navarro, Artekaleara 6 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 22, DOMEKA	
09:00-09:00	
Mugica, Andra Maria 9 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
MARTXOAK 23, ASTELEHENA	
09:00-09:00	
Navarro, Artekaleara 6 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
MARTXOAK 24, MARTITZENA	
09:00-09:00	
Etchebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
MARTXOAK 25, EGUAZTENA	
09:00-09:00	
Bazan, Uribarri 5 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
MARTXOAK 26, EGUENA	
09:00-09:00	
De Diego, Intxaurren 22. - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	

ZORION AGURRAK	
	Adei Zorionak, Adei! 6. urtebetzea martxoaren 23an. Milioika besarkada eta muxu zure familiaren partez! Jarrai dezagun elkarrekin ilusio eta pozez bidaia eder hau! Ilargira eta buelta maite zaitugu.
	Arantza eta Martin Zorionak, Arantza eta Martin! Urte berri honek ere mundutik bueltaka harrapa zaitzatela!
	Uzuri Cebrian Uzuri Cebrian Iriondok urteak egin ditu martxoaren 16an. Zorionak eta besarkada handi bat, laztana!
	Haizea Zorionak, Haizea! 16 urte egin dituzu, eta zenbat gauza bizitzeko oraindik! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez.

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

☎ 661 401 400

📌 Gozatu Gozotegia

📍 gozatugozotegia



Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurraekin batera.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali *agenda@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitetz Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

OROIGARRIA

Anboto eskelak:

ESKELAK JARTZEKO:
946 816 558 edo *anboto@anboto.org*

Modulo bateko Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean edo webgunean: **75 €** / Anboto kideendako **65 €**

Bi modulotako Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean eta webgunean: **115 €** / Anboto kideendako **105 €**

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

BERRIZKO EKITALDIAK

MARTXOA

22 IGANDEA	Zinema: Baba Yaga eta sorginkerien liburu 17:00 Kultur Etxea
27 OSTIRALA	Zinema: Hurrengo geltokia 20:00 Kultur Etxea
28 LARUNBATA	Ipuin kontalaria: Itsasoaren berbak 12:15 Kultur Etxea
29 IGANDEA	Zinema: Balandrau, viento salvaje 19:00 Kultur Etxea

INMOBILIARIAK



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO
www.inmoetxetxo.com



C.E.E= F 230.000€

MATIENA (TRAÑABARREN) 112m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela terrazarekin. Trastelekua.



C.E.E= F 140.000€

IURRETA 72 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.



C.E.E: F 195.000 €

IZURTZA (PABILIOIA) 261 m2-ko industria-pabilioia. 10,50 metroko altuera du. Aire instalazioa. Karga-jasogailua eta polipastoa.



11.000 €

SAN INAZIO AUKERA. Garajea.



C.E.E.= F 470.000€

BASERRIA BERRIZTATUA. 436m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. Garaje itxia. 4 hektareako lursaila.



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.ezk. - 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.

GOIENKALEA: 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.

KURUTZIAGA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

BARRENKALEA: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

BARRENKALEA: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna.

ATXONDO

ATXONDO: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

ATXONDO: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

URRUTXUA: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko.

MUXIKA: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. 90.000 €.

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

ERMODO KALEAN. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIRUAN

ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

ELORRIO: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI

BERRIZ

BERRIZ: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C. E. E.: E. 148.000€

DURANGO SAN FAUSTO 47,66m2. Egongela-sukaldea (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztasuna. ITE-a pasatutakoa.



C. E. E.: F. 274.000€

DURANGO SASIKOA 68,18m2. Halla horma-armairuekin, egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Garaje itxia eta ganbara.



C.E.E.=E 164.000 €

ABADIÑO SAN TROKAZ 33,65 m2. Egongela-sukaldea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna duxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.



C. E. E.: Bidean 264.000€

MATIENA TRAÑABARREN 94,8m2. Halla, egongela, suklade jantzia, 3 logela (2 horma-armairuekin), despentsa lehiorekin, komuna eta bainugela. Toldo automatikoa duen balkoia. etxe osoak kanpora ematen du.Argitsua. Ikuspegiak. 14,25 m2-ko ganbara. Garajea aukeran.



C. E. E.: G. 187.000€

BERRIZ AGIRRE LEHENDAKARIAEN PASEALEKUA 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrrenkalea, 15 behea - DURANGO
Tel.: 946 816 423 - www.fernandouri.be.es

BERRIAK

DURANGO

San Inazio auzunea: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A

DURANGO

ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €.

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F

E.BUSTINTZA KIRIKIÑO KALEA: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. 150.000 € E.E.Z=G

GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F

ZUMAR PARKEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. 400.000 € / E.E.Z=E

ABADIÑO

DENDARIKOA: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.

TXINURRISOLO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. 180.000 €/ E.E.Z=E

ATXONDO

ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.

BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzorugaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €

EITUA: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €

GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

ZUBIAURRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

ALLUITZ: Garaje itxia. 24.000 €.

KURUTZIAGA: Garajea. 18.000 €.

KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €.

MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.

DURANGON ALOKAGAI

MURUETATORRE: Garajea. 75 € / hilean.

ANTSO EZTEGIZ: 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.

PLATERUEN PLAZA: Garajea, 75 € / hilean.

TRONPERRI KALEA: Garajea, 75 € / hilean.

Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E

KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 60.000 € / E.E.Z=F

ZABALE KALEA: 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F

SAN MARTINPE ATARIA: 12 m2-ko lokala. 25.000 € / E.E.Z=F

Zubipean



IRURI ALTZERREKA
MARTINEZ

Urteak erritmo geldiezina darma. Urtarrilean familia bazkariak izan genituen (gehiegixto, agian), otsailean San Blas eguna, kar-nabalak... eta konturatzerako martxoaren erdialdea pasatu dugu. Dagoeneko ondo apuntatuta ditugu geure agendetan Aste Santuko egun gorriak. Askok, seguruenik, aspalditik izango dute hoteleko erreserba egina. Orain, urtebeteko aurre-
rapenarekin lotzen ditugu planak.

Instagrameko argazkiak ikusiko ditugu, auto-ilaren irudiak telebistan, oroigarriak gure izozkailuetan, eta zuloak kontu korronteetan. Buruak errutinatik ihes egiteko eskatuko digu, eta gorputzak, berriz, gelditzeko. *Bizi* egunero bizi behar dela iradokiko digute sare sozialetako aurpegi irribarretsuek, baita egun *ez-gorrietan* ere: joan zaitez zinemara martitzenean, Kafe Antzokira egunean, eta Dublinera aste barruan. *Eskapadatxo* bat.

Teorian dena *guay*, baina praktikak kontrakoa irakatsi dit. Aste barruko nekealdiak aste-buruetako ordaina dakar. Gakoa, agian, planak denboran sakabatzeari utzi, eta erritmoa pixka bat bajatzean dago. Edo sekula lasai biziko ez garela onartzean. Batek jakin. Bien bitartean, barne gatazkak barne gatazka, aste-bukaera ederra opa dizuet denoi, Dublineko zubiak zeharkatuko dituzuenoi etxeko zubipean babestea erabakitzen duzuenoi beste.

"Pole dance egiteak ahaldundu egin nau; konfiantza gehiago daukat neure gorputzean"

ANA PICALLO PEREZ POLE DANCE PRAKTIKATZEN DU

Aitziber Basauri DURANGO

Ana Picallok (Bilbo, 1991) *pole dance* egiteko erabiltzen du Our-daybi elkartearen ezarritako barra. Artea eta kirola batzen dituen jardunerako teknika da *pole dance*, indarra eta burua oinarritzkoak dituen, eta Picallok hasiberritzat du bere burua.

Zelan erakarri zintuen *pole dance* diziplina?

Kasualitatez hasi nintzen *pole dance* egiten. Ez nuen diziplina hau ezagutzen. Eskaladaren mundutik nator, eta aurretik gimnastika erritmikoa egindakoa naiz. Akrobaziagaz edo dantzagaz zerikusia duen zeozer egiteko gogoia nuelako hurbildu nintzen *pole dance*-ra, orain lau urte. Breakdance izan zen nire lehenengo aukera, baina nuen adina kontuan hartuta, Durangon ez nuen hasiberrien talderik aurkitu.

Bilbon hasi zinen *pole dance* egiten.

Maila anitzeko hamar bat laguneko talde bat topatu nuen Bilbon. Hasiberrien mailan hasi nintzen eta ikusi nuen oso aproposa zela niretzat. Eskalatzailea naiz eta biak uztargarriak dira. **Teknika, indarra eta burua beharrezkoak dira maila berean.**

Bai. Indarra ez ezik, teknika eta burua ere ezinbestekoak dira. Beldurra edo frustazioak mugatu egin zaitzakete. Barra batean akrobaziak egitean datza *pole dance*. Indarraren, koordinazioaren eta buruaren arteko oreka behar da. Eskaladaren oso antzerakoa da.



Edonork egin dezake *pole dance*? Exijentzia fisiko handia du?

Pauso batzuk ikasi egin behar dira, denean legez. Eskaladan 13 urte daramatzat, baina *pole dance*-an hasiberria naiz. Biak zaletasun ditut. Neure buruari ipinitako erronken arabera ari-tuko naiz batean eta bestean.

Zein ekarpen egin dizu zuri?

Konfiantza gehiago daukat neure buruarengan. Barra baten inguruan koreografia eta irudi akrobatikoak sortu behar dira, gorputza baliatuta. Oso jantzi gutxiagaz egiten da. Azala hobe-



to atxikitzen da barrara, eta egonkortasun handiagoa lorzen da akrobazia egiteko. Lotsa sentitetik harro sentitzera pasatu nintzen. Oso gorputz desberdinak bere gaitasunaren arabera akrobaziak egiten ikusteak konfiantza handia eman zidan, eta tabuak baztertzeko lagundu zidan. *Pole dance* amatasunagaz lotzen dut.

Hori azaldu dezakezu?

Pole dance egiten hasi eta hila-bete bira haurdun geratu nintzen. Ahal izan nuen arte jarraitu nuen eskalatzen eta *pole dance* egiten. Baina umea izan eta gero beldur nintzen ea ez nintzen gai izango akrobaziak egiteko. Hala ere, oso azkar berreskuratu nuen aurreko forma fisikoa. Ausartagoa nintzen, gainera. Eta berderatzi hilabetera bigarrenaz haurdun geratu nintzen. Eskaladan zein *pole dance*-an berdinarraitzeko aukera izango nuela jakiteak asko lagundu dit.

Ahalduntzean laguntzen duela uste duzu?

Guztiz. Aurreritzi asko dago. *Striptease*-agaz lotzen da, este-reotipoz beteriko mundu ilun batez. Estigma horiek kenduta, ahaldundu egin nau eta konfiantza gehiago daukat neure gorputzean. Jainkosa baten legez sentitzen zara, egindako lanagaitik zoriondu egiten zaituzte eta mirestituta sentitzen zara. Taldekideekin sortzen den konplizitatea ere oso polita da.

***Pole dance* estilo asko dago.**

Bai. *Pole sport*, *pole exotic*... Azken horren barruan badago aukera takoiekin egiteko ere. Oso gustura egiten dut, 20 zentimetro altuagoa naiz (barrez). ***Pole dance* egin gura duenari zer gomendatuko zenioke?**

Probatzea gomendatuko nuke. Probatu ezean ez dago jakiterik gai garen ala ez.

Motzean

Akrobazia bat?

Arkatza.

***Pole dance* berba batean?**

Ahalduntzea.

Indarra ala burua behar da gehiago?

Biak, koordinazioagaz batera.

***Pole dance* kirola ala artea da?**

Artea.



Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 **sukia.com**

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa